

Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Praktiketako kontratuak.

Diruz lagun daitezkeen kontratuen **betebeharrak**:

- Gazteekin sinatutako kontratuetako lanpostuak EAEn kokatutako lantokietan betetzea; gazteok langabetuak eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon behar dute.
- **2015ko azaroaren 30 baino lehen** hastea.
- Gutxienez, **6 hilabete** (2 urte arte, eta luzatzea baimentzen da).
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa)
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
- Idatziz formalizatu beharko da, eta titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena, lanpostua eta urteko ordainsari gordina zehaztu beharko da, 3.2.c) artikuluan ezarritako gutxienekoen arabera.
- Kontratazioek **enplegu sorrera garbia** eragin beharko dute, kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko sei hiletako batez besteko langile kopurua kontuan hartuz. Kontratazio-egunean, kontratu berriak lehen aipatutako batez bestekoa handitzea ekarri behar du.
- Senidetasun-falta, 3.4. a) artikuluaaren arabera.

Edonola ere, Langileen Estatutuan egiten diren aurreikupenetera egokitu beharko dira, eta aplikatzekoa den gainerako arauetara ere.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Kontratu mugagabeak:

Diruz lagun daitezkeen kontratuen **betebeharrak**:

- Gazteekin sinatutako kontratuetako lanpostuak EAEko lantokietan bete behar izatea.
- **2015ko azaroaren 30 baino lehen** hasia.
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa)
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokিতa egon beharko du.
- Idatziz formalizatu beharko da, eta titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena, lanpostua eta urteko ordainsari gordina zehaztu beharko da.
- Kontratazioek **enplegu sorrera garbia** eragin beharko dute, kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko sei hiletako batez besteko langile kopurua kontuan hartuz. Kontratazio-egunean, kontratu berriak lehen aipatutako batez bestekoa handitzea ekarri behar du.
- Senidetasun-falta, 3.4. a) artikulua araberakoa.

Edonola ere, Langileen Estatutuan egiten diren aurreikuspenetara egokitu beharko dira, eta aplikatzekoa den gainerako arauetara ere.

Enpresa eta erakunde onuradunen baldintzak

Enpresa pribatuak (edozein dela ere haien forma juridikokoa), banako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, baldin eta hurrengo **baldintza** hauek betetzen badituzte:

- a) Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b) Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
- c) Deialdi honen bidez kontratatuko den lanpostuan enplegurik ez suntsitu izana, kontratazio berriaren aurreko urtean, eta ez suntsitzea diruz lagundutako kontratazioak iraun bitartean.
- d) Enpresaren langileen legezko ordezkariak jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa dagoela. Enpresek berriaz adierazi beharko du eskabidean langileen legezko ordezkariarik duen ala ez.
- e) Aldez aurretik Europar Batasuneko Batzordeak hartutako erabaki baten ostean ez egotea errekupeartzeko agindu bati lotuta, zeinak laguntza bat merkatu erkidearekin bateraezina edo legez kanpkoa dela baitu.

Enpresa eta erakunde onuradunen baldintzak

Enpresek eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

- a) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.
- b) Emakumeei eta gizonei tratu eta aukera berdinei emateko printzipioaren arabera izatea haren helburuak eta xedeak, hartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolakundea edo estatutuak.
- c) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Efectiborako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoa.

Honako hauek ezin izango dira erakunde onuraduna izan:

- Erakunde autonomoak.
- Sozietate publikoak.
- Administrazio publiko baten mendekoak diren elkarteak edo erakundeak.
- Eskura jartzeko enpleguetarako ABLEak.

Diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, **ordaintzeko**, amaitu egin beharko dira itzultze- edo zehapen-prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasitako eta izapideetan dauden prozedurak alegia.

Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Enpresak

Praktikaldiko kontratua \Rightarrow Ikasketa-tituluen arabera.

Titulazio akademikoa	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak barne)	Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako
Goi-mailako titulazioa eta unibertsitate-gradua	18.000,00 €	4.500,00 €	4.950,00 €
Erdi-mailako titulazioa	15.200,00 €	3.800,00 €	4.180,00 €
Goi-mailako Heziketa Zikloak (LH II)	13.000,00 €	3.250,00 €	3.575,00 €
Maila Ertaineko Heziketa Zikloak (LH I) eta Profesionaltasun-ziurtagiria	11.200,00 €	2.800,00 €	3.080,00 €

Kontratu mugagabea



Kontratuzioko aurreneko urteko soldata-kostuaren % 50: gehienez ere 6.700,00 €

- ▶ Diru-laguntzaren zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie; lanaldi partzialeko kontratuak lanaldiaren arabera izango dira.
- ▶ Zenbatek horiei % 10 gehituko zaie, kontratuak **emakumeei** egiten zaizkienean.,

Diru-laguntzak ordaintzea

- Lehen ordainketa: %53,19, kontratua aurkezterakoan.
- Bigarren ordainketa: % 46,81 azken justifikazioaren ondoren.

Prozedura eta epeak

1.- Diru-laguntza eskatzeko epea: **2015eko azaroaren 20a arte.**

2.- Aldeko ebazpena jaso ondoren, jakinarazpenetik hilabeteko epean aurkeztu beharko du enpresak lan-eskaintza Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulego batean edota zentro laguntzaile batean. Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsoneri egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko.

3.- Diruz lagundutako kontratua formalizatu ondoren, 10 egun balioduneko epea izango da diru-laguntzaren lehen ordainketa eskatzeko, dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

4. - Hilabeteko epean kontratua amaitu ondoren, eta, edonola ere, 2016ko abenduaren 20a baino lehen (azken justifikazioa, 2. ordainketarena, aurkeztuko da).

